

**Diarmuid de Faoite**

# **NÓRA**

(2017)

**Pádraic Ó Conaire-ren *Nóra Mharcuis Bhig* kontakizun laburrean oinarritua**

**2. bertsioa**



**Itzulpena: Itziar Otegi Aranburu**

**bestehitzak**  
||| |



**focailleile**  
||| |

**Diarmuid de Faoite**

**NÓRA**

**(2017)**

**PERTSONAIA NAGUSIAK:**

Nóra Marcus Beg Nee ('Helen' bihurtzen da II. Ekitaldian)  
Marcus Beg Nee  
Marcus-en emaztea (Máire Nee); zenbaitetan, Ama.  
Peadar Marcus Beg (Nee)  
Patrick John Matthew (inguru hartan senideak dituen medikuntza-ikasle bat)  
Tomás Michael an Ghabha, (bederatzi urte ditu I. Ekitaldian, eta hemezortzi III. Ekitaldian)  
Mac Consaidín Aita (Apaiza bat Londresen)  
Molly (prostituta bat Londresen)  
Michael an Ghabha, Tomás-en aita.

**BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK:**

(Goian zerrendaturiko aktoreek egiten dituzte rol hauek)

Herriko apaiza.  
Mairéad Chóil Mhóir Rynne  
Sarah Michael an Ghabha,  
Bid (Nóra-ren amauntzia)  
Beairtle, herriko gizon bat.  
Cáit (Kate) Chóil Mhóir Rynne, Neetarrentzat lan egindako emakume bat.  
1. auzokidea, emakumezkoa  
2. auzokidea, emakumezkoa  
3. auzokidea, gizonezkoa  
Zaintzailea  
D1-6 (hainbat pertsonaia, agerraldiaren arabera)  
Maiordomoa  
Ongi jantzitako gizon bat  
Jaun bat (bezeroa)  
Itsasgizon bat (bezeroa)  
Atezaina  
Proxeneta  
Ann (Patrick John Matthew-ren emaztea)  
A1-A4, hainbat pertsonaia.



***OHAR BAT AGERTOKIAREN ANTOLAKETAZ:***

*Ekintza kokapen batetik bestera aldatzen denez, hainbat espazio iradokitzeko moduan atondu behar da antzeztokia, antzezpen irekirako bidea ematen duela, errealismoa lortzen saiatu gabe. Materialak, atrezzoak, soinua eta argiztapena baliatzen dira hainbat espazio iradokitzeko. Agertokian, gutxienez zonalde bat altxatuta dago, zubi bat iradokitzeko moduan.*

# 1. EKITALDIA

## SARRERA

*Nóra (12 urte) ohe gainean etzanda dago, izara zuri bat gainean, eta burkoa.*

UME AHOTSAK: (*kantari*)

Nóra txikia, non zeunden? Amak itaun zidan  
Etxatzeko putzu ondoan, trebatzen dantzan,  
O nire Nor, maite-maitea, zu zara nire bihotza  
O nire Nor, maite-maitea, nire maitasun aratza

NORAREN AHOTSA:

O zeruko aingeru, jagole maite,  
Jaunaren argiz nauzu bete,  
Atera nazazu arren gaitzetik  
Gorputz-arimak gorde beti

*Agertokian argiak apaldu egiten dira. Hurrengo neurtitzarekin batera, elizako kanpai-hotsa entzuten da, eta sakristia-lanpara bat agertzen da airetik.*

UME AHOTSAK:

Nóra txikia, non zeunden? Baratzean beti  
Eta esan, norekin zeunden? Txirula-jolearekin  
O nire Nor, maite-maitea, zu zara nire bihotza  
O nire Nor, maite-maitea, nire maitasun aratza

# 1. AGERRALDIA

AMA: Nóra, Jainkoaren izenean, arin ibili edo berandu iritsiko gara Konfirmaziora.

*Nóraren ama eta aita, MARCUS, silueta gisa ikusten dira agertokiaren atzealdean. Nóra, konfirmazio-soinekoa jantzita, bien artetik korrika agertzen da, eta istantean hirurak aurrerantz etortzen dira, aitaren egin, makurtu eta belauniko jartzen dira; Noraren aita, alde batera begira.*

*Gainerako aktoreak binaka aurreratzen dira agertokiaren atzealdetik eta gauza bera egiten dute, eta berriz ere gizonak eta emakumeak bereiz gelditzen dira. Beste neska bat ere bada Konfirmazio soinekoa jantzita. Patrick John Matthew 13 urteko mutil gisa dago, besteak baino dotoreago jantzita. PEADAR MARCUS, Nóraren anaia, berandu iristen da. Aita ez da askorik harritzen.*

MARCUS: Non zeunden?

PEADAR: Inon ez.

*Aitak bekozko iluna jartzen dio.*

Goiko futbol-zelaian.

*Aktore batek estola janzen du eta apaiz bihurtzen da; korridorean gora doa, eta denak altxatu egiten dira.*

MARCUS: Txapela

*Peadar-ek txapela kentzen du.*

HERRIKO APAIZA: Dominus vobiscum

ELIZTARRAK: Et cum spiritu tuo.

*Eliztarrak belauniko jartzen dira.*

HERRIKO APAIZA: *Confíteor Deo omnipoténti.*

*DENAK: beátæ Mariæ semper Virgini, beáto Michaéli Archángelo, beáto Ioanni Baptístæ, sanctis Apóstolis Petro et Paulo.*

*D1: Ez al dago eder-ederra...*

*ELIZTARRAK: Ederra omnibus Sanctis, et vobis, fratres (tibi, Pater),*

*D2: Andratxoak dira jada, Jainkoak bedeinka ditzala.*

*ELIZTARRAK: Denbora ihesi doa.... quia peccávi nimis cogitatióne, verbo et ópere: (bularra hiru bider kolpatuz) mea culpa, mea culpa, mea máxima culpa.*

*D3: Marcus-ek ez dio diruari asko begiratu, alabaren kontuan.*

*D1: Badu eta, gastatzeko adina.*

*ELIZTARRAK: Irabazi egin dute Ideo precor beátam Mariám semper Virginem, beátum Michaélem Archángelum, beátum Ioánnem Baptístam, sanctos Apóstolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et vos, fratres. Otoitz egiozue nire alde Jainko gure Jaunari.*

*Zutik jartzen dira denak*

HERRIKO APAIZA: Bedeinka zaitzatela Jainko Ahalguztidunak, Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

ELIZTARRAK: Amen.

HERRIKO APAIZA: Solemnia completa sunt in nomine Domine Nostri Iesu Christi votum nostrum sit acceptum cum pace.

ELIZTARRAK: Deo Gratias.

## 2. AGERRALDIA

*Apaizak estola kendu eta MICHAEL AN GHABHAREN rola hartzen du. Eliztar guztiak elizatik ateratzen dira, Nóra, haren ama eta BID izan ezik.*

BID: *(Nórari, arrosarioa eskuetan jarriz).* Badirudi atzo bertan izan nintzela zure bataioan, eta begira orain: Konfirmazioa! Tira, zorionak bihotzez, maitea, neure alaba bazina bezain harro nago zutaz.

*(Nóra besarkatu, eta abiatu egiten da. Nóraren ama ere abiatzen da baina bat-batean Nórak odola sumatzen du bere soinekoan. Lotsatuta dago.*

NÓRA: Ama...

AMA: ... Zer? *(Nóra lotsatuegi dago ezer esateko)* Zer duzu, ume?

NÓRA: Bustita nago behetik.

AMA: Zer?

*(Nórak orban gorri bat erakusten dio bere soinekoan. Amak ingurura begiratzen du, inork ikusi ote duen beldur. Nóra izututa dago.)*

NÓRA: Amatxo, zer da?

AMA: Bid, zatoz hona nire ondora. *(Bid istantean hurbiltzen zaio)*  
Zikloak hasi zaizkio.

*(Amak eta Bidek Nóra tapatu, eta kanporantz gidatzen dute.)*

NÓRA: *(kanporantz doala)* Odoletan al nago?

AMA: Ixo. Etxera joan behar duzu.

BID: Zorioneko zara, maitea, zorion gorria duzu.

*Nóraren amak begiratu ilun bat botatzen dio.*

AMA: Zer ote dakizu zuk horretaz?

*Begi ninian bezala kolpatu dute Bid.*

MARCUS: Zer zabiltzate, hain presaka?

BID: E... zorabioa izan du...

MARCUS: Zorabioa? Ondo al dago?

BID: O, ez dago zertan kezkatu. Gertatzen dira, halakoak. Guk zainduko dugu. (*Beste biei jarraitzen die kanpora*)

*Geratzen dira PEADAR (15), MARCUS, MICHAEL AN GHABHA, haren semea eta alaba (Sarah (12) eta Tomás (9)). PEADAREk joan egin nahi du.*

MICHAEL AN GHABHA: Zorionak, Marcus, nork pentsatuko zuen alaba gaztea hain azkar helduko zitzaizunik, e?

MARCUS: Nola?

GABHA: Konfirmaziora heldu, alegia.

MARCUS: A, bai, bai. Eskerrik asko, Michael, eskerrik asko benetan. Eta zorionak zuei ere, jakina. Bitxia, ezta?, zenbateko abailan doan denbora,

GABHA: Bai, ezta? Zer moduz dabil zure seme zaharrena Galway aldean? John, ezta?

MARCUS: Bai. Ondo, orain ondo, egia esateko. Sonny-rekin dabilenez, ondo ikasiko du ofizioa.

GABHA: Sonny-rekin? Leku onean sartu duzu orduan.

MARCUS: Tira, haren hezkuntzan hainbeste diru gastatu ondoren, ezin utzi ahalegin hori guztia alferrik galtzen, ezta? Eta, nolnahi ere, gure John beti izan denez etorri handikoa, leku ezin hobean dago orain, bere abileziari etekina ateratzeko.

GABHA: Halaxe da. Hizlari leunenak, dendariak; zalantzarik ez.

MARCUS: Bai ba...

GABHA: Bai ba... Eta zentzua ere badute, jakina.

MARCUS: Jakina.

GABHA: Baina, esaerak dioen bezala, zentzua ez da etortzen adina baino lehen, eta hura oraindik gaztea da, Jainkoak bedeinka dezala. Hots egingo didazu astelehenean, gurdi gurpil hori dela eta? (*alabari*) Goazen. Bizitzaren gurpil handia, hala diote. (*Errementaria (Gabha) pipa betetzera gelditzen da*).

*(Peadar abiatu egiten da)*

MARCUS: Zer dela-eta, presa hori?

PEADAR: Futbol partida dago, goiko zelaian.

MARCUS: Orain?

PEADAR: Bai, oraintxe...

MARCUS: Eta behi nabarra, zer?

PEADAR: Ezin al du itxaron?

MARCUS: Itxaron, erditzeko? Zer-nolako baboa haiz hi?

*Marcus abiatu egiten da, eta gero gelditu, eta semeari begiratzen dio. Gogo gutxiz, Peadar aitarekin joaten da.*

MARCUS: Utzizu hara eta hona ibiltzeari eta zoaz etxera azkar.  
*(Aurrerantz bultza egiten dio semeari)* Azkar, esan dut!

GABHA: *(Aita-semeak nola urruntzen diren begira)* Ofizioa ikasten, dio. Zurrutean eta lotsagabekerian ibiltzen, hori bai, ikasiko du!

### 3. AGERRALDIA

*Handik urte batzuetara; Nóra, Sarah eta Mairéad Chóil paseatzera atera dira.*

NÓRA: Nora joango gara?

MAIRÉAD (Moraid): Seán (Shawn) Zaharra uhartera joatekoa da gaur, ontzia hartuta, belarretan etzan eta zerbait edatera.

NÓRA: Non eta gaituen bere ondoan belarretan etzatera gonbidatzen!

HIRURAK: Ajjjjjjjjj...!

MAIRÉAD: Ez nioke musurik emango ezta urrez betetako poltsa baten truke ere!

SARAH: Jack Martin-i eman zenion ba, eta hark ez du xentimorik ere!

MAIRÉAD: *(Sarah-ri eraso eginez)* Nik ez dut halakorik egin!



SARAH: Bai egin zenuen!

MAIRÉAD: Eta zuk zeure anaiari eman zenion musu, eta hori Jainkoaren legearen kontrakoa da, badakizu!

SARAH: Sekula ez!

NÓRA: Sarah, ikusi egin zintugun.

MAIRÉAD: Praktika pixka bat hartzen, ezta?

SARAH: Joan zaitezte uhartera zuek biak, urdanga pare hori.

MAIRÉAD: Zer esan diguzu?

SARAH: Entzun duzuen. Urdanga pare.

MAIRÉAD: Erretira ezan hori.

SARAH: Zuri dagokizunez, bai, erretiratuko dut, baina Nóra Marcus Beg-i dagokionez, ez, udako enaren atzetik ibiltzen den emakumea da eta...

NÓRA: Barkatu?

SARAH: Udako enarak esan dut, bai.

NÓRA: Ez dut arrastorik ere zertaz ari zaren...

SARAH: Ez duzulako jakin nahi, ezta? Ederki asko dakizu zertaz ari naizen. Zubipean ikusi zintuzten. (*Alde egiten hasten da*) Pentsatzekoa da mediku baten semeak hotel batera eramango lukeela neska, baina seguru asko jakingo du hori gabe ere lortuko duela bila dabilen hori.

(*Borrokan hasten dira, elkarri iletik tiraka, eta Mairéad biak banatzen saiatzen da*)

MAIRÉAD: Geldi, Jainkoaren izenean, utz iezaiozue! Kristo ahalguztiduna, oraintxe aurretik Aitortzatik atera gara eta.

NÓRA: Bera hasi da.

SARAH: Soinekoa tarratatu didazu! (*Negarrez hasten da*). Ezin izango dut konpondu. Erabat hondatu duzu. Aitak akabatu egingo nau.

MAIRÉAD: Nik josiko dizut, inor ez da konturatuko.

SARAH: Bai, konturatuko dira.

MAIRÉAD: Ez dira konturatuko, eta, gainera, ez al ditu Mairéad Jostunak orratza eta haria aldean eramaten beti? Orain, erakutsi tarrantada hori. (*Soinekoa konpontzen hasten da*).

SARAH: (*oraindik ere bekozko ilunaz*) Ez da ondo geratuko eta berriz tarrantatuko da.

MAIRÉAD: Zer esan nahi duzu, ez dudala ondo josten? Arraioa, ze gaiztoak zaudeten gaur, ez dakit zein den arazoa.

NÓRA: Eguraldi sargoria, esango nuke.

SARAH: (*ahots apalean*) Edo bero-bero gaudela. (*Mairéad-ek zizta egiten dio orratzaz.*) Ai!

MAIRÉAD: Bekatari halakoak! Sabelkeria eta lizunkeria! Zurruta eta haragikeria! Aitorlekura itzul behar ote genuke?

*Barrez hasten dira*

NÓRA: Ai ene, astean apaizaren sermoi bat nahikoa eta gehiegi bada, ahaztu gabe aitorlekuan botatzen duena. Mojak ere izutuko lituzke horrek!

MAIRÉAD: Niretzat izan du, bada, laudoriorik!

NÓRA: Eta arrosario oso bat ere bai, penitentzia gisa, apustu egingo nuke!

MAIRÉAD: Halako hamar, hain zuzen. Eta, aipatu duzunez, hobeto lehenbailehen hastea... "Agur Maria, graziaz betea..."

*Barrez hasten dira*

MAIRÉAD: Geldi, gaizto horiek!

SARAH: Aski! Utzi barre eragiteari!

NORAREN AMA: (*urrunean, eszenatoki atzean agertuz*) Nóra, Nóra! Ordu erdi daramat zure bila. Eraman iezaiezu bazkaria aitari eta anaiari, tripa-zorriak egin baino lehen.

MAIRÉAD: Hobe genuen Seán Zaharraren ontzira jauzi egin izan bagenu, aukera genuen bitartean.

SARAH: Bai, eta Ingalaterrara alde egin.

MAIRÉAD: Edo Amerikara.

NÓRA: Edo Glasgowra.

NÓRAREN AMA: Nóra, ez al didazu entzun hots egiten?

NÓRA: *Irribarre egoki bat jarrita. Banoa!*

SARAH: Esan ez dizut, bada!

*Mairéad-ek zizta egiten dio berriz. Aitx!*

*Tomás (Tumaws) Michael gaztea agertzen da, Sarah-ren anaia.*

TM: Behar zaituzte.

SARAH: Behar, zertarako?

TM: Aitak nahi zaitu.

SARAH: Beste egun bat alferrikaldua gizonei kasu egiten.

NÓRA: *(Irribarre goxo batez) Eta gaua ere bai. Joan egiten da.*

*Besteek elkarri begiratzen diote baina ez dute deus esaten, Tomás han dago eta.*

MAIRÉAD: Ia amaitu dut.

*TM inguruan geratzen da, arrebaren zain. Soinekoa josten ari zaizkiola konturatzen da.*

TM: Zer gertatu zaio zure soinekoari?

*Bi neskak harengana jiratzen dira.*

MAIRÉAD + SARAH: Ez duzu ezertxo ere ikusi.

SARAH: Entzun didazu?

*Mutila desagertu egiten da Mairéad-ek lana bukatu ahala. Neskak joan egiten dira.*

#### 4. AGERRALDIA

*Marcus eta haren semea, Peadar, harresi bat eraikitzen ari dira. Peadar presaka ari da lanean.*

MARCUS: Zertan zabilta? Horrek ez dio eutsiko... Ez du ezertarako balio. Berriz hasi beharko duzu.

PEADAR (*sututa, baina harria kendu eta beste baten bila hasten da*)

MARCUS: Eta eutsiko al diozu zuzen, Jainkoaren izenean. (*Isilunea*) Entzuten al didazu? Begira, zatoz atzerago (*eta 'harresiari' ostikada bat ematen dio. Harresia goitik behera erortzen da*) Zertarako balio du horrek, e? Zertarako? Behi bat bizkarrean hazkura egiten hasi balitz horren kontra, goitik behera eroriko litzateke. Eguna alferrikaltzen ari zara, gu bion eguna... Zer demontre gertatzen zaizu? Oraindik ere partida horren harra duzu barruan, ezta?

PEADAR: Badut leku bat taldean.

MARCUS: Bai izango duzu, baina hemen ere bai, eta arreta handiagoz lan egingo bazenu agian lortuko zenuke partidara garaiz iristea.

PEADAR: Nola iritsiko naiz bada, harresiak gainera botatzen badizkidazu!

MARCUS: Nik harresia bota? Zuk egin duzuna ez da harresi bat, bat bestearen gainean jarritako harri pila bat besterik ez. Zekor bat ere ez zukeen geldiaraziko, errepidera ateratzen hasiz gero, are gutxiago zezen bat. Begira, begira hona. Begiratu ingurura. Norenak dira inguru honetako zelairik berdeenak? Norenak? Begira zer drainatze-lana egin dugun. Ikusten duzu? Ikusten al duzu iherik inguruan? Esan!

PEADAR: Ez, ez dut ikusten.

MARCUS: Eta badakizu zergatik ez duzun ikusten?

PEADAR: Hezurren izerdiagatik.

MARCUS: Nire hezurren izerdiagatik, horixe. Eta badakizu zergatik?

PEADAR: Gure hobe beharrez.

MARCUS: Zure hobe beharrez eta zure arrebaren hobe beharrez, eta ez zure anai mozkor horren hobe beharrez, hark ez bailuke harresi hau pixa egiteko bestetarako erabiliko. Hasi berriz!

(*urrunago lan eginez orain*)

Ez naiz harritzen Britainiar Armadan amaitzea, norik besterik hartuko zuen halako eskuzuri bat! Eta hark bezala bukatu nahi al duzu zuk ere, e? Gu Neetarrok inguru honetako lurrik finenetako berrogei akrearen jabe gara. Lurrik finena. Ikas ezazu gauzak behar bezala egiten, hori besterik ez dizut eskatzen, eta gero jokatuko duzu futboleko azken juizioa etorri arte, hala nahi baduzu.

PEADAR: Taldean dudan lekua galdu egingo dut ez banago han...

MARCUS: Begira, seme. Etxaldeari ere ez diozu eutsiko, lurra ez baduzu lantzen. Han goian dabilen jendearen erdiak egun erdia futbol zelaian pasatzen du, eta beste erdia pubean. Haien zelaietan hazten den gauza bakarra ihi bustiak dira, eta osasunak huts egingo dienean, ez dute izango ez lurrik ez futbolik, den-dena zurrutan xahutua izango dute eta. Nondik uste duzu etorri direla gehitutako akre horiek, e? (*isilunea*) Erantzun.

PEADAR: Zure hezurren izerditik.

MARCUS: Michael an Ghabha-ren anaiagandik, duela bost urte hil zen harengandik; Jainkoak gorde dezala berekin. Edanean galdu zituen, akre guzti-guztiak. Eta guk eskuratu, bai, gure hezurren izerdiaz. Eta askoz ere itxura hobea du orain, Michaeldarrena zenean baino. Eta ez pentsa ez dudarik entzuten zer esaten duen jendeak nire bizkarrean. Errespetua aitortu nahi eza, horixe; eta jakin nahi duzu nola dakidan? Inbidiak hartuta daudelako, horrexegatik; lotsatuta daudelako eta nahiago luketelako gu tabernan ikusi, zurrutean, hemen behean lanean ikusi baino, gure lanarekin haiek lotsarazten. Zuk ere erakuts ezazu errespetu pixka bat, mutil. Tira, buka dezagun harresi hau ilundu baino lehen, eta gero ere izango duzu futbolerako nahikoa denbora.

*Peadar saiatzen da berriz ere lanari heltzen, baino ez du lortzen harresia taxuz egiterik. Negarrez hasteko zorian dago. Alde egiten hasten da.*

MARCUS: Nora hoa, e? Ez ezak pentsa une batez ere hire lana nik bukatuko dudarik, e? Itzul hadi hona!

*Máire agertzen da, Marcus-en emaztea.*

MARCUSEN EMAZTEA: Bukatu al duzue? Nora zoaz zu?

PEADAR: Amerikara! (*eta badoa*)

MARCUS: Amerikara? Hik daukaan fundamentuarekin ez haiz iritsiko ezta Galwayraino ere!

MARCUSEN EMAZTEA: Marcus.

MARCUS: Zer? Nondik etorri zaizkigu hauek, e? Non arraiotik?

*Oso asaldatuta dago. Ama minduta dago baino ez du adierazten.*

MARCUSEN EMAZTEA: Tea eta opiltxoak ekarri dizkizut, indarrak berritu ditzazun. Pentsatu dut agian berandura arte aritu nahiko zenutela, eguraldia lagun dugunez.

*Isilunea*

MARCUS: Hala egingo dugu.

*Makurtu eta lanari ekiten dio berriz. Máirek saskia lurrean utzi eta hantxe geratzen da apur batez. Argiak itzali egiten dira pixkanaka.*

## 5. AGERRALDIA

*Gaua. Tomás Michael (8-9 urtekoa) ibai ondoan eserita dago. Nóra hurbiltzen entzuten du, eta ezkutatu egiten da. Nóra zain geratzen da, 'zubi' ondoan. Ikusten du han ez dagoela inor bere zain, eta etsipen keinu bat egiten du. Aldi berean, inork ikusteko beldur dirudi. PATRICK JOHN MATTHEW isilpean ateratzen da bere ezkutalekutik, eta esaten du*

PATRICK: Bu!

NÓRA: *Izututa.* O! Jainkoarren, non zeunden...

PATRICK: *Konturatzen da benetan izutu duela.* Ea, lasai, ez da ezer gertatzen. Barkatu.

NÓRA: Ez zeunden, eta pentsatu dut...

PATRICK: Ez esan. Benetan pentsatu duzu zu bezalako emakume eder bat itxaroten utziko nukeela?

NÓRA: Ez adarrik jo!

PATRICK: Ez naiz ari adarra jotzen. Hementxe naukazu! Eta zu ere hemen zaude. Eta oraintxe bertan ez nuke munduan beste inon egon nahi. Emango dugu paseo bat ibaiertzean?

NÓRA: *(lotsa eta ausardiaren artean)* Aurrena musu eman beharko didazu, nerbioak baretzeko...

PATRICK: *(ingurura begiratzuz)* Hemen?

NÓRA: *(Zubirantz begiratzen du).*

PATRICK: Emango dizut bat, bai, eta beste mila ere bai, gero.

*Neskari eskutik heldu eta zubi-itzalaren kontra estutzen dira, inoren ikusmenetik gehiago ezkutatzeko. Mutilak musu ematen dio, eta neskaren gorputzak erantzun egiten dio.*

NÓRA: Ziur al zaude?

PATRICK: Zurekin egon nahi ote dudan? Ez al da antzematen?! *(Berriz musu ematen saiatzen da; neskak muxu arin bat ematen dio bueltan)*

NÓRA: Barkatu. Urduri nengoen.

PATRICK: O, Nóra, ez dago urduri egoteko arrazoirik. *Kantuz*  
O nire Nor, maite-maitea, zu zara nire bihotza (*lepoan musu emanaz orain*)  
O nire Nor, maite-maitea, nire... maitasun...

NÓRA: (*plazerezko barretxoak eginez*)

PATRICK: (*haren hatzak dantzan neskaren larruazalean*) Kuku miku santaliku, txoriak umeak egin ditu...

NÓRA: Geldi! Kilimak egiten dizkidazu.

PATRICK: Hara, begira! Oilo-ipurdia!

*Mutilaren jolasei itzuri egin eta harengandik ihesi joaten da. Eseri egiten da. Mutila haren ondoan esertzen da. Neskak muxu arin bat ematen dio masailean. Zerua seinalatzen du.*

NÓRA: Nola zuen izena han goiko izar sorta horrek? Ahizpak, ez ziren?

PATRICK: Bai, haiexek dira, zazpi, alajaina! Pleiadeak. Denak hortxe goian elkarri txutxumutxuka.

NÓRA: Agian ondo konpontzen dira elkarren artean. Nahiko gustura dirudite goi horretan.

PATRICK: Bai, baina entzungo bazenitu... psss txutxu mutxu... Entzun al duzu zer egin zuen atzo Orionek ehizan zebilela? Ez zion bada gezi bat bota Ursa Maiorri eta jo-eta ipurdi betean eman?

NÓRA: (*Barrez*) Eta non dago orain Orion?

PATRICK: Begira. Ikusten al duzu hor hego ekialderantz ageri den errektangelu moduko hori, bat bi hiru lau, eta nola dauden hiru izar nolabaiteko 'diagonal' baten erdian?

NÓRA: Ti-angelua?

PATRICK: Di-agonala. Honantz, ez horrantz. Orionen makila esaten diote.

NÓRA: (*Barrez*). Benetan?

PATRICK: Bai!

NÓRA: O, ikusten dut. Arraioa, handi-handia da, ezta?

PATRICK: Itzela, batez ere aintzat hartzen baduzu zenbateraino urrun dagoen gugandik! Eta hortxe bere eskuak...

NÓRA: ... A, bai, gerlari bat dirudi!

PATRICK: Arkulari bat, preseski. (*Gorputzarekin arkulari bat itxuratzen du, gezi bat jaurtitzen*).

NÓRA: (*Begiak Patrick-engandik gaueko zerurantz eramaten ditu*) Ez diot sekula berriz orain arte bezala begiratuko zeruari. Ehunka eta milaka istorio eta abentura egongo dira hor goian.

PATRICK: O, bai, hala da. Bestelako bizitzak, bestelako munduak.

NÓRA: Deseatzen al zaude zure beste bizitza hartara itzultzeko, berriz ere?

PATRICK: Glasgown? Nahiago nuke zurekin egon hemen. Baina Glasgown nirekin bazeunde, hura nolakoa den ikusterik bazenu, Nóra! Ez zenuke sinetsiko zer-nolako eraikinak dauden han, eta nolako jendea. Nonahitik etorriak dira. Ni ikasten egoten naizen eraikina — ikasten nagoenean—, bost solairutakoa da, imajina dezakezu?

NÓRA: Nik ikusi dudan eraikinik altuena gure hemengo elizatxo da. Beno, behin Clifdenen egon nintzen aitarekin. Clifdeneko etxeak zer dira, hiru solairutakoak edo laukoak?

PATRICK: Eraikin txikiak baino ez dira. Hemendik kanpo badaude eraikin batzuk Clifdeneko kale oso bat bezain altuak direnak.

NÓRA: (*harriduraz*) Ez esan

PATRICK: Bai, egiatan, harearrizko bloke handiz eginak.

NÓRA: Harea harria?

PATRICK: Bai, halako harriak dituzte han. Ez da guk hemen daukagun granittoa bezain gogorra, eta askoz errazagoa da haiekin eraikinak egitea, bai eta harria lantzea ere. Ikusi behar zenuke zer-nolako ornamentazioak egiten dituzten! Kiribilak, hormabularrak, gargolak...

NÓRA: Ez dut arrastorik zertaz ari zaren!

PATRICK: Dekorazioaz: estatuak, harrian zizelkaturiko irudiak, arkulariak, birjina erdi biluziak...

NÓRA: Erdi biluziak?

PATRICK: Erdi biluziak. Ez dira batere asaldatzen halakoekin. Eta gauza ona da hala izatea, batez ere anatomia ikasten ari zarenean, ulertzen duzu?



NÓRA: A, hori gogoratzen dut aurreko batetik: gorputzaren zientzia, ezta?

PATRICK: Hala da.

NÓRA: Ikergai modura?

PATRICK: Bai.

NÓRA: Beraz, ikerketa gaia al naiz zuretzat?

*Mutilak etsipen keinu bat egiten du.*

Barkatu. Badakit ez naizela hala. Izan ere, hemengo mutilak beti dabilta hatzaparra gainean jarri nahian. Baloia edo bularra, zerbait biribila eta biguna behar dute beti hatzapar artean.

PATRICK: Okerragoak egin zitzaketen.

NÓRA: (*Barrez*) Bai, badakit. O, ez dakit zer gertatzen zaidan. Zu bazoaz, Patrick, eta, tira, badakit Gabonetan hemendik ibiliko zarela berriz, baina... (*besoak botatzen dizkio*). Faltan botako zaitut, ez dago zu bezalakorik inguru hauetan.

PATRICK: Eta han, berriz, ez dago zu bezalakorik.

NÓRA: Emakumeak zientoka izango dira han, Patrick, seguru.

PATRICK: Bai, badaude, baina zu ez zaude han.

*Musu ematen diote elkarri.*

PATRICK: Itxaron eta ikusiko duzu zer-nolako etxea izango dugun ikasketak amaitzen ditudanean: zutabe dorikoak alde banatan, eta estatuak idulki gainean gonbidatuei harrera egiteko.

NÓRA: Biluzik, jakina.

PATRICK: Jakina. Ezker eta eskuin, marmolezko eskailera handi bat logeletara igotzeko, bulego bat niretzat, zigarro eta brandy eta guzti.

NÓRA: Sigarroa?

PATRICK: Zigarroa. Habanako tabakoaren biribilki handi bat.

NÓRA: Biribilki handi bat, orduan. Zenbateraino handia?

PATRICK: Honelakoa.

NÓRA: Hain handia? Alajainkoa, medikuaren emazteak ikasi beharko du, hortaz, biribilki handi horiei buruz.

PATRICK: Ez dira osasunarentzat onak.

NÓRA: Ez al dira? *Mutilaren behealdea laztantzen du.* Gorputzaren ikasketa. Baina medikuaren ustez biribilki horiek ez badira osasunarentzat onak beharbada utzi egin behar nioke?

PATRICK: Ez, ez zenioke utzi behar.

NÓRA: Ez nioke utzi behar?

PATRICK: Ez, ez zenioke utzi behar.

NÓRA: Nire osasunarentzat txarra izanda ere?

PATRICK: Pizten ez dituzun bitartean.

NÓRA: Eta nola pizten dira, bada?

PATRICK: Horrelaxe.

NÓRA: *(Gelditu egiten da).* Zertan ari naiz. Pentsatuko duzu emagaldu bat naizela. O, barkatu, ez dakit zer gertatzen zaidan. *(Zutitu eta arropak lisatzen ditu).*

*Mutilak eskutik heltzen dio.*

PATRICK: Nóra, ez gara ezer txarrik egiten ari.

NÓRA: Ez genuke horrela ibili behar, ez al da Jainkoaren legearen kontrakoa?

PATRICK: Nor mintzatu da orain, apaiza, zure aita, edo zu zeu?

*Neskak apur bat atzera egiten du. Berriz ere izarrei begira jartzen da. Isilunea.*

NÓRA: Gabonetarako ez da hainbeste falta, ezta?

PATRICK: Gabonetan ez naiz hemen izango. *(Nórak ezusteko gogorra hartzen du)* Ez naiz etorriko, Nóra. Azken urtean nago. Ikasi beharra daukat, bestela ez gainditua emango didate. Lehenik erein egin behar...

NÓRA: Ez ezazu esan! Aitaren esaeretako bat da hori. Lehenik erein egin behar, gero bilduko bada. Erein eta bildu. Hezurren izerdia.

PATRICK: Lan pixka bat egin behar dudala, besterik ez dut esan.

NÓRA: Ulertzen dut, benetan, baina... ez nuen halakorik espero, horixe da. Iaz...

PATRICK: Iaz ez nengoen azken urtean.

*Isilunea*

NÓRA: Urte bat, diozu?

PATRICK: Horixe behar dut, titulua lortzeko.

NÓRA: Tira, Patrick John Matthew, hobe duzu gogor ikasi ze bestela medikuaren semearekin ezkonduko naiz, eta ez medikuarekin berarekin, eta horrek ez luke balioko!

PATRICK: Hara zu eta zure gogaldiak!

NÓRA: Esango nuke zuk dituzula gogaldiak, nik baino gehiago.

PATRICK: Nolatan?

NÓRA: Gogaldi handi bat (*berriz laztantzen du behealdean*).

PATRICK: Urte luzea izango da zinez.

NÓRA: Bai, hala izango da. *Gehiago hurbiltzen zaio mutilari*. Luzeegia. Jakin behar zenuke opari eder bat izango duzula zain debora luze horren ondoren.

PATRICK: Ez al dut, bada, nire titulua izango?

NÓRA: Bai, eta beste zerbait ere bai.

PATRICK: Adibidez?

NÓRA: Ni neu. Etzan zaitez.

PATRICK: Non?

NÓRA: Hortxe. Sorgin-korroan.

PATRICK: Zer sorgin-korro?

*Mutila etzan egiten da, eta neska haren gainean esertzen.*

NÓRA: Belar sail hau eraztun magiko bat da, maitagarrien dantza eremua.

*Tomás Michael ikusten dugu, haiei begira.*

NÓRA: Biribilki handi hori are gehiago handitzen ari da, edo nire irudipena da?

PATRICK: Zugatik da.

NÓRA: Beno, medikuaren emaztea sigarroei buruz ikasi beharrean dago orain, ez al da hala?

PATRICK: Hala beharko du, bai. O, Nóra, maitea, zu zara... Nahiago zaitut zu Irlanda osoa baino.

NÓRA: Eta Eskozia.

PATRICK: Eta Eskozia.

NÓRA: Batera hartuta.

*Argiak itzaltzen dira. Tomás Michael-ek begira jarraitzen du. Aktoreak kanpora.*

## 6. AGERRALDIA

*Sakristiako lanpara airetik sartzen da. Aktoreak sartu, aitaren egin, makurtu eta abar egiten dute. Emakumeak alde batera, gizonak bestera.*

D1: Non ote dago Peadar Marcus?

HERRIKO APAIZA: *Confíteor Deo omnipoténti.*

*ELIZTARRAK (+APAIZA) beátæ Maríæ semper Vírgini, beáto Michaéli Archángelo, beáto Ioanni Baptístæ, sanctis Apóstolis Petro et Paulo,*

D2: *Ez al duzu berria entzun?*

D1: *Ez, ez dut entzun.*

*ELIZTARRAK: ómnibus Sanctis, et vobis, fratres (tibi, Pater),*

D2: *Oughterardeko feria ondotik alde egin zuen Peadar-ek.*

D3: *Bigarrenak ere?*

*ELIZTARRAK: Árd quia peccávi nimis cogitatióne, verbo et ópere:*

D2: *Bai, eta poltsikoan bi idien dirua zuela gainera.*

*ELIZTARRAK: mea culpa*

*D1: Bi idi.*

*ELIZTARRAK: mea culpa*

*D2: Poltsikoan.*

*ELIZTARRAK: mea máxima culpa.*

*D3: Eta seme nagusia*

*ELIZTARRAK: Ideo precor beátam Mariám semper Vírginem, beátum Michaélem Archángelum,*

*D3: Michael Marcus: lanetik kaleratua*

*D2: kaleratua*

*D1: kaleratua*

*D1-3: lanetik kaleratua*

*ELIZTARRAK: beátum Ioánnem Baptístam*

*D1- 3: Edariarengatik.*

*ELIZTARRAK: Ól sanctos Apóstolos Petrum et Paulum,*

*D2: Zer gehiago?*

*D1: Zer gehiago?*

*D2: Edaria*

*D1: Edaria*

*ELIZTARRAK: omnes Sanctos, et vos, fratres Ól*

*D1: Britainiar Armadan sartu da.*

*D3: Nork besterik hartuko zuen, bada.*

*D2: Bi idi.*

*APAIZA: Otoitz egiozue nire alde Jainko gure Jaunari.*

D2: Bilau hori (*Marcus-ek eta beste guztiek entzuten dute*)

*ELIZTARRAK*: Amen.

*Zutitu egiten dira denak. Meza amaitu da.*

APAIZA: Solemnia completa sunt in nomine Domine Nostri Iesu Christi votum nostrum sit acceptum cum pace

*ELIZTARRAK*: Deo Gratias.

## 7. AGERRALDIA

*Apaiza eta eliztarrak joan egiten dira, eskenatokian utzita Marcus, haren emaztea eta Nóra. Sakristiako lanpara airean zehar irteten da, argiak aldatu egiten dira eta hirurak belauniko jartzen dira, beren etxean. Arrosarioa esaten ari dira. Nóra bukatzeko deseaten dago.*

MARCUS: ... Arren eskatzen dizugu, Ama Birjina Bedeinkatuaren Arrosario Santuaren misterioei buruz gogoeta eginez, jarrai diezaiozula haien irakasbideei, eta lor dezagula agintzen dutena, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

NÓRA + AMA: Amen.

*Aitarenekin egiten dute. Nóra, istantean, bere 'gelara' joaten da. Ohetik maindirea hartu, lurrean utzi, boligrafoa eta papera hartu eta eskutitz bat idazten hasten da.*

NÓRA: 'Nire Patrick John Matthew maitea, nola doaz zure ikasketak? Gorputzaren zientzia, alegia. Mantez zaituz sigarroetatik urrun, liburuekin amaitzen duzun arte. Aski.

*Nóraren ama eta aita deseroso daude elkarren ondoan.*

MARCUS: Behiari begiratu bat bota behar diot.

MARCUSEN EMAZTEA (MÁIRE): Oraindik ez dago umatzeko prest.

MARCUS: (*zakar*) Nola dakizu?

*Istantean damutzen zaio hain suminkor erantzun izana. Máire harengana hurbiltzen da.*

Entzun dituzu gaur.

MARCUSEN EMAZTEA: Zaila zatekeen ez entzutea.

MARCUS: Denak gure kolkotik barre egiten ari dira.

MARCUSEN EMAZTEA: Faltan botako dut.

MARCUS: Ez gaude okerrago hura gabe.

MARCUSEN EMAZTEA: Bietako nor gabe?

*Isilunea*

MARCUS: Bilaua.

*Emazteak atzera egiten du. Isilunea.*

Haiengatik egin dugun guztiaren ondoren. Esker txarrekoak.

*(emazteak ez du erantzuten)*

Lotsarazi egin gaituzte.

MARCUSEN EMAZTEA: Ez al dakit nik ongi zer egin duten, baina utziko al diozu mesedez horrela hitz egiteari?

*Isilunea*

MARCUS: Lapur zikina. Badakit. Badakit.

*Nóra ahopeka kantatzen ari dela entzuten da, 'Wild Mountain Thyme' edo 'Loch Lomond' kantuaren bertsio azkar bat.*

*Isilunea. Máire kezkaturik dago.*

MARCUS: Ez da gaitzik onik ez dakarrenik.

MARCUSEN EMAZTEA: Zer esan nahi duzu?

MARCUS: Nóra.

*Isilunea*

MARCUSEN EMAZTEA: Eta zer gertatzen da Bríd-ekin?

MARCUS: Ez al da Bríd bere bizitza egiten ari Ingalaterran? Ez dut uste itzuliko denik.

MARCUSEN EMAZTEA: Nork esango zuen, lau ume izanik, hain azkar hustuko zutenik habia.

MARCUS: Nork daki, agian laster umaldi berri bat izango dugu hemen?

*Máire-k senarrari begiratzeko dio.*

Seguru, ez dago baserritar-semerik edo merkataririk gugandik hogeit hamar mila eremuan Nóra esposatzeko gogoz ez dagoenik; gogoz ez, irrikaz. Ez al ziren bi etorri iaz haren galde?

MARCUSEN EMAZTEA: Bai, neska jator eta maitagarria da.

MARCUS: Ez dago harentzako modukorik parrokia-auzo osoan. Eta, gainera, berarekin batera izan litekeen lurrik finenaren berrogei akre doaz. Ez dugu berriz lorik galduko beste bi horiengatik, ez alajaina.

*Alde egiten hasten da.*

Ez horixe. Jainko indartsuak eta haren ama onak lagun gaitzatela.

*Nórak amaitu du bere eskutitza.*

MARCUSEN EMAZTEA: Nora zoaz zu orain?

MARCUS: Behi horri begiratzera, nora joango naiz, bada?

*Máire bakarrik geratzen da. Ondoeza egiteraino kezkatuta dago. Isilunea.*

*Nóra eskutitzari eta maindireari begira dago. Maindirea 'irakurtzen' hasten da.*

NÓRA: 'Patrick Ó Malley jauna, Medikuntza Fakultatea, Glasgowko Unibertsitatea, Eskozia.' Oraingoa ondo daukazu, seguru. Aurrekoan ere ondo zeneukan. Ez. Ezinezkoa da.

*Maindirea altxatu eta ikusten dugu nola gutun-azal handi bat dirudien, helbide bat eta 'zigilu' gorri bat dituela.*

Idazkera ederra. (*haur baten tankeran*) Eskerrik asko, andereño.

*'Gutun-azala' bere gorputzaren inguruan biltzen du*

O, Patrick John Matthew, zabal ezazu gutun-azala eta ikusi zer ekarri dizun postariak. *Efektu handiz zabaltzen du.* Ta-txan!

Beharbada zigilua jartzea ahaztu zait? *Egiaztatzen du.* Hementxe dago. Joateko prest.

*Kontu handiz maindirea tolesten du, harik eta gutun-azal handi baten tamainara eraman arte, eta gero hantxe sartzen du 'eskutitza'.*

*Sukaldean, amak eskutitz bat ateratzen du mantaletik, eta hari begira geratzen da.*

*Nórak musu batez ixten du bere eskutitza. Bularraren kontra estutzen du, eta bere bularrak samurtuta nabaritzen ditu. Isilunea.*



Postari jauna, ez iezadazu hutsik egin berriz, edo kexa gutun bat idatzi beharko diot zure Erregina horri.

*Nóra bere gelatik irteten da, eskutitza eskuan. Amak ezkutatu egiten du eskuetan daukan eskutitza.*

MARCUSEN EMAZTEA: Nora zoaz zu?

NÓRA: Postetxera.

MARCUSEN EMAZTEA: Zu ere alde egitekotan, ezta, Nóra?

NÓRA: *(Ama besarkatuz)* Plan handiak ditut, ama.

MARCUSEN EMAZTEA: Benetan ari naiz.

NÓRA: Bai eta ni ere bai, jauregi bat eraikiko dut hemen guretzat, hareharrizkoa, eta mota guztietako estatuekin dekoratu.

MARCUSEN EMAZTEA: Harea harria? Agian ez duzu alde egin besteek bezala baina pentsatzen hasita nago zeharo joana zaudela.

NÓRA: Agian hala nago eta agian ez baina badaude *agian* gehiago ere, ama! O, ama, dena ondo aterako da.

*Isilune laburra.*

MARCUSEN EMAZTEA: Harea harrizkoa, ezta?

NÓRA: Bai, eskulturak eta guzti.

MARCUSEN EMAZTEA: Zer da, bada, guretzat eraikiko duzun hori, eliza bat edo zer?

NÓRA: Elizarik ez, ama, jauregi bat, esan dizut!

*Nóra joan egiten da, eta amak berriz ere eskutitza ateratzen du poltsikotik. Zer egin ez dakiela dago.*

MARCUSEN EMAZTEA: O, Jainko maitea, lagundu nazazu.

*Nóra joandako lekurantz begiratzen du, gero behera eskutitzerantz, eta gero berriz gorantz.*

## 8. AGERRALDIA

*Lau pertsona sartzen dira maindirea zabal irekita dakartela, hura flotaraziz eta airea harrapatuz. Nórak atzetik jarraitzen die.*

DENAK:

Itxi begiak maitea,

Nire izarño bereki,

Itxi begiak maitea,

Laster duzu opari.

Aita badator menditik

Basoilarra besoetan,

Lo egizu sutondoan,

Laster duzu opari.

*Nóra lurrean etzanda jartzen da eta besteek maindirez estaltzen dute. Ikusten dugu 'Helbide honetan ez' dagoela idatzirik, maindieran/gutun-azalean zehar. Aktoreek ahopean kantatzen dute, hurrena datorrenaren gainean.*

D1: Eskutitz bat zuretzat, Nóra.

D2: Atzera bueltan bidalia (*eskutitza haren gainean erortzen uzten du*)

D3: Beste eskutitz bat zuretzat, Nóra.

D4: Atzera bueltan bidalia (*eskutitza haren gainean erortzen uzten du*)

AMA: Eta hona hemen beste bat, hau ere bueltan bidalia (*eskutitza haren gainera erortzen uzten du*).

*Aktoreek kontsolatu egiten dute.*

DI: Nire Nóra txikia

D2: Non zeunden?

D3: Eta esan, norekin zeunden?

D4: Nolakoa zen dantza?

*Nóraren aita agertzen da.*

DENAK: *(Nóra izan ezik)*

Aita badator menditik

Basoilarra besoetan,

Lo egizu sutondoan,

Laster duzu opari.

*Nórak oihu egiten du, eta une horretantxe haren ama eta aita agertzen dira, eskenatoki atzealdetik. Beste aktoreek maindirea kentzen diote gainetik, eta joan egiten dira. Nórak gonbito txiki bat egiten du. Bere burua apur bat garbitzen saiatzen da. Aita harengan jiratzen da:*

## 9. AGERRALDIA

MARCUS: Zer egitera zoazela?

NÓRA: Ingalaterrara joan.

AMA (jiratuz):

Ingalaterrara joan?

NÓRA: Bai.

MARCUS: Burua galdu al duzu edo zer? Ez zara Ingalaterrara joango eta utziozu adarra jotzeari.

NÓRA: Ez naiz ari adarra jotzen. Ingalaterrara noa.

MARCUS: Eskuetatik joan al zara erabat? Ahizpari bisita egin nahi diozu, ezta?

NÓRA: Ez.

MARCUS: Adarra jotzen ari zaigu.

NÓRA: Ez. Ingalaterrara noa.

Marcus. Baina, zergatik?

NÓRA: Zergatik?

MARCUS: Bai, zergatik?

NÓRA: Bizimodu aldaketa bat.

MARCUS: Bizimodu aldaketa bat.

MARCUSEN EMAZTEA: Hemen ere alda zenezake bizimodua, badakizu egin zenezakeela.

MARCUS: Erraz asko alda zenezake bizimodua, bai horixe.

MARCUSEN EMAZTEA: Hemen ezkonduko bazina goitik behera aldatuko lirateke zure kartak, eta gu pozez zorutzen izango ginateke zugatik, bai, pozez zorutzen.

MARCUS: Pozez zorutzen, bai.

MARCUSEN EMAZTEA: Bai zure aita, bai ni ere.

NÓRA: Ez dut ezkondu nahi.

MARCUS: Ez duzu ezkondu nahi?

MARCUSEN EMAZTEA: Ez duzu ezkondu nahi eta zer beste egin zenezake bada zure buruarekin eta zurekin doazen berrogei akre lurrekin, batere zentzurik baduzu?

NÓRA: Nirekin doazela?

MARCUS: Bai, Nóra, jakina, munduan beste ezer baino gehiago nahi genuke, bai zure amak, bai nik ere, zu gizon on bat hartzen ikustea, eta ziurtatuko genuke benetan hala egiten duzula, eta ez al dira, bada, zuretzat izango lurrak eta gainerako guztiak gu hiltzen garenean?

*(bere gauzak 'biltzen' edo bere gela/espazioa garbitzar ageri da)*

NÓRA: Eta mutilak, zer?

MARCUS: Ez zaitez kezkatu haiekin; ez, egin digutena eta gero. Ez gaude okerrago haiek gabe, baina Nóra, gure alaba gaztea, gure izarra, ez al dakizu ondo asko zuretzat onena baino ez dugula nahi?

NÓRA: Eta ez al da horixe bera nik nahi dudana neure buruarentzat?

MARCUS: Ez duzu aurkituko hemendik joanda.

NÓRA: Nola dakizu?

MARCUS: Hementxe dagoelako, zure zain.

NÓRA: Bríd ere kanpoan utziko duzue, ezta?

MARCUS: Gu arduratuko gara Bríd-en kontuaz, baina Bríd joan egin da, eta bere bizitza egin du hemendik kanpo.

NÓRA: Horixe nahi dut nik ere.

MARCUS: Baina, eta nork zainduko du etxaldea? Saldu, ezta? Parrokia-auzo honetako etxalderik onena. Hainbeste urte nire hezurren izerdia zelai horietan botatzen. Urte latzak. (*Isilunea. Emazteari, hurrena*). Ez al duzu hitzik, niri laguntzeko?

MARCUSEN EMAZTEA: Entzun ezazu aitaren esana, Nóra, zuzen dago.

*Elizako kanpaiaren hotsa entzuten dugu. Joan egiten dira. Meza azkarra da hau. Sakristiako lanpara ez da sartzen airean zehar.*

APAIZA: *Confíteor Deo omnipoténti,*

*ELIZTARRAK: beátæ Mariæ semper Virgini, beáto Michaéli Archángelo, beáto Ioanni Baptístæ, sanctis Apóstolis Petro et Paulo.*

D1: *Eta zertan dabilela uste duzu, joan egin nahi izateko?*

D2: *Esango nuke etxean gauzak ez daudela ondo.*

*ELIZTARRAK: ómnibus Sanctis, et vobis, fratres (tibi, Pater)*

D3: *Hiru etorri zitzaizkien iaz ezkon eskean.*

*ELIZTARRAK: Hiru quia peccávi nimis cogitatióne, verbo et ópere: mea culpa,*

D1: *Hiru?*

*ELIZTARRAK: mea culpa*

D2: *Hiru?*

*ELIZTARRAK: mea máxima culpa.*

D3: *Eta, gainera, diru asko duten hirur, esaten dutenez.*

*ELIZTARRAK: Ideo precor beátam Mariám semper Virgínam*

APAIZA: Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

*ELIZTARRAK: Amen.*

*Zutitu egiten dira denak.*

APAIZA: Solemnia completa sunt in nomine Domine Nostri Iesu Christi votum nostrum sit acceptum cum pace

*ELIZTARRAK: Deo Gratias.*

*Denak joaten dira, Nóra, ama eta aita izan ezik. Berriz ere haien etxean gaude.*

MARCUS: Eseriko al zara hemen nirekin minutu batez, Nóra, zurekin hizketaldi bat izan nahi nuke. Nóra, maitea, izugarri harro nago zutaz, hori badakizu, ezta?

NÓRA: Badakit.

MARCUS: Eta badakizu zeu zarela zazpi parrokia-auzo hauetako neskarik finena?

NÓRA: Zuk esaten baduzu.

MARCUS: Bai, hala da. Etengabe datoz gizonak zure galde. Ezin dut ferria batera joan gaur egun gizonen batek zutaz galdetu gabe.

NÓRA: Heziera oneko jendea izango da eta.

MARCUS: Bai, heziera ona, jakina, baina hori baino gehiago ere bai. Zu nahi zaituzte, ulertzen?

NÓRA: Bai.

MARCUS: Ez ezazu pentsa, minutu batez ere, gauzak horrela izango direnik hemendik kanpo.

NÓRA: Ez dakit hala izango diren edo ez.

MARCUS: Ez al duzu ikusten? Ez dakizu zipitzik ere zoazen leku horretaz. Irlanda mendebaldetik joandako irlandar neska pobre bat izango zara, ingelesez gutxi dakiena, edo batere ez. Oso egoera kaxkarrean egongo zara.

NÓRA: Uste nuen aberatsa nintzela.

MARCUS: Bai, bazara. Hemengo besteekin alderatuta oso ondo gaude, bai. Eta oraindik hobeto egongo gara gizon egokia aurkitzen badizugu.

*Nórak begiratu berezi bat botatzen dio. Aitak beste bide bati heltzen dio.*

Erabateko ezezaguna izango zara han. Ez dizute errespeturik izango.

NÓRA: Ez dakit zer pentsatuko duten nitaz, baina badakit han aukera batzuk izango ditudala, aita. Hor kanpoan badago aberastasun izugarri bat, hemengo jendeak amestu ere egin ez duena.

MARCUS: Zure ahizpak ez du horratik askorik ikusi, ezta?

NÓRA: Nola dakizu? Agian dena beretzat gordetzen ari da.

MARCUSEN EMAZTEA: Ez ezazu horrela hitz egin zure ahizpaz.

NÓRA: Barkatu.

MARCUS: Ondo da, Nóra, baina, ez al duzu ikusten orain hemen eskura dituzula aukera guzti-guztiak, beste inozo pare horrek alde egin ondoren? Ez da inguru honetan baserritar semerik...

NÓRA: ...Ni joaten naizenean ere inozotzat hartuko al nauzu?

MARCUS: Ez inozoa bakarrik, baizik eta munduko ergelik handiena.

NÓRA: Ez.

MARCUS: Bai.

NÓRA: Ezetz esaten ari naiz.

MARCUS: Baietz berriz ere, zin degizut horixe izango zarela, bizitza osoan entzun dudan astakeriarik handiena baita, eta, nik ez ezik, gainerako guztiek ere badakite.

MARCUSEN EMAZTEA: Marc –

MARCUS: Zer? Zer esan behar dut, bada, e? Debrien arima! Ez dago dendaririk ez baserritarrik hogei miliako...

NÓRA: Hogei milia, ez baserritar semerik ez dendaririk. Zenbat bider entzun behar dut hori berriz? Ingalaterrara joan nahi dut eta kito, eta askoz ere nahiago nuke zuen bedeinkazioarekin joan, zuen madarikazioarekin baino, baina ez bata ez besteak ez dit erabakia aldaraziko. Barkatu baino ez dizuet utziko nire erabakia aldatzen. (*Negarrez hasteko zorian dago. Joan egiten da*).

MARCUSEN EMAZTEA: Beste modu batean saiatu beharko zara berarekin.

MARCUS: Beste modu batean? Zenbat modu desberdin hartu ditugu orain artekoan? Mandoa bezain kaskagogorra da.

MARCUSEN EMAZTEA: Nondik ote datorkio?

*Elizako kanpai hotsa entzuten da. Gorputz-jarrera aldatzen dute. Beste aktoreak sartzen dira.*

APAIZA: Dominus vobiscum

ELIZTARRAK: Et cum spiritu tuo.

*Denak belauniko jartzen dira.*

ELIZTARRAK: Omnio srl .... *Ahopeka, apaiza hitz egiten ari dela...*

APAIZA: Pentsamenduz edo hitzez, egin behar ez dena eginez edo egin beharrekoa ez eginez.

D1: Entzun dut John Matthew-ren semearekin zerbait izan zuela.

*APAIZA: Baina ez da hor amaitzen, ez, hori hasiera besterik ez da. Hor daude, baita ere, gezurra esatea, ezkon-nahastea, lekukotza faltsua ematea, sakrilegioa...*

*D2: Glasgowko eskola handi batean zebilen hura?*

*D3: Horixe bera.*

APAIZA: Hor daude baita ere hilketa, lapurreta, sabelkeria eta diruzalekeria.

*D4: Sagar ustela, tipo hura.*

*D1: Zerorrek esan duzu.*

APAIZA: Ase ezina eta lizunkeria!

*ELIZTARRAK: Amen!*

*APAIZA: Egin dezagun otoitz.*

*Denak joaten dira, berriz ere gure familia izan ezik, eta otoitzak ahopean esaten dituzte, berriz ere isiltasuna egin artean. Orduan:*



MARCUS: ... Arren eskatzen dizugu, Ama Birjina Bedeinkatuaren Arrosario Santuaren misterioei buruz gogoeta eginez, jarrai diezaiogula haien irakasbideei, eta lor dezagula agintzen dutena, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

M, M+N: Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, amen.

*Isiltasuna. Nóra, isilik, etxeko lanetan laguntzen hasten da. Denak ere leher eginda daude, sesioaren ostean. Nórak ez du bere iritzia aldatu.*

MARCUSEN EMAZTEA: Zer egingo nuke zu gabe?

NÓRA: Ondo moldatuko zinateke, ama.

*Isilunea*

Orain dela urte batzuk bazenituen baliabideak Kate, neskamea, hartzeko, eta geroztik gainera hobeto gabiltza diru aldetik.

MARCUSEN EMAZTEA: Ondo dakizu hau ez dela diru kontua.

NÓRA: Badakit.

MARCUSEN EMAZTEA: Zu zara geratzen zatzaizkigun bakarra, Nóra.

NÓRA: Badakit.

MARCUSEN EMAZTEA: Beldur naiz ez ote den zerbait gertatuko joaten bazara... ez duzu ikusten zer minduta dagoen aita azken hilabete honetan?

NÓRA: Ikusten dut.

MARCUSEN EMAZTEA: Ez gaitzazu utzi.

NÓRA: Astero idatziko dizuet biei, hitz ematen dizuet.

MARCUSEN EMAZTEA: Ezin dut gehiago.

MARCUS: Nóra!

*Nórak te zapia tolesten du esku artean, astiro-astiro. Eginahalak egiten ari da lasaitasunari eusteko.*

NÓRA: Bi seme izan dituzu, aita. Biek ere alde egin dizute. Biek lotsarazi zaituzte. Nola dakizu nik ere ez dizudala gauza bera egingo, ez banauzu borondate onez joaten uzten?

*Isilunea.*

*Nóra bere 'gelara' joaten da, baina ikusten jarraitzen dugu.*

*Isilunea*

MARCUSEN EMAZTEA: Lauetatik azkena da, Marcus. Eta, nahiz eta berarengandik banatzeak bihotza apurtzen didan, agian horixe da onena berarentzat.

MARCUS: Ez da.

*Alde egiten hasten da. Atean gelditzen da. Emazteari begiratzen dio. Ikusten du zenbateraino penatuta dagoen. Itzuli eta Nóraren ateraino joaten da. Alabari begiratzen dio.*

MARCUS: Ahizparekin geratuko zara Liverpoolen, ezta?

*Isilune luze bat.*

NÓRA: Bai, hala egingo dut.

*Aita joan egiten da. Nóra bere 'logelaren' ateraino etortzen da, amari begiratzera. Besarkatu egin nahi luke, baina biak ere izugarri penatuta daude, oso sentikor. Ama 'sutondora' joaten da. Argiak pixkanaka itzali egiten dira. Ama joan egiten da. Nórak mantala erantzten du.*